

## AURKIBIDEA

<b>HAUSTERRE EGUNA .....</b>	<b>4</b>
<b>GARIZUMAKO I. IGANDEA.....</b>	<b>9</b>
<b>GARIZUMAKO II. IGANDEA.....</b>	<b>15</b>
<b>GARIZUMAKO III. IGANDEA .....</b>	<b>21</b>
<b>GARIZUMAKO IV. IGANDEA .....</b>	<b>27</b>
<b>GARIZUMAKO V. IGANDEA.....</b>	<b>33</b>
<b>JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA .....</b>	<b>39</b>
<b>JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>45</b>
<b>II. PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>51</b>
<b>III. PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>57</b>
<b>IV. PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>63</b>
<b>V. PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>69</b>
<b>VI. PAZKO IGANDEA .....</b>	<b>75</b>
<b>JAUNAREN IGOKUNDEA .....</b>	<b>81</b>
<b>PENTEKOSTE IGANDEA .....</b>	<b>86</b>
<b>ERANSKINAK:</b>	
<b>I. Hasierako agurra kantuz egiteko doinuak .....</b>	<b>94</b>
<b>II. Damu-otoitzerako beste era batzuk .....</b>	<b>95</b>
<b>III. Fede-aitormena .....</b>	<b>96</b>
<b>IV. Letania-erako esker-otoitzak .....</b>	<b>98</b>
<b>V. Bedeinkapen-eskaria kantuz egiteko doinuak.....</b>	<b>112</b>
<b>VI. Azken-agurra egiteko doinuak .....</b>	<b>113</b>

## HAUSTERRE EGUNA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Errukiaren Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Garizuma hasten dugu gaur. Hautsaren ezaugarriaren bidez gure bekataria izatea aitortuko dugu, eta Bataioaren bidea berreginez Pazkora gerturatu behar dugula onartuko dugu. Penitentzia-aldia eta Bataio-aldia badugu Garizuma, baina bereziki Pazkorako prestaera-aldia dugu. Larunbat Santu gauez ospatuko dugun Pazko Gaubeila santuari begira jartzen gara gaurtik. Han garbituko dira gaurko hautsaren bekatu-aztarnak. Han berrituko da gure Bataioko hitza. Han garaile agertuko da Kristo, heriotzaren gainetik bizia berrituz. Pazkoa dugu guk, hitzemandako lurra. Hara goaz, Israel-herri izaki, basamortuko bidea eginez.

*Damu-otoitzik ez da egingo; horren orde ezarritako da.*

### Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Lagun iezaiozu, Jauna, kristau-herriari  
barau-egun honekin benetan bihotz-berritzeko bidea hasten,  
penitentziaz indarturik,  
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleginean garaile atera dadin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A B C** urteetan

Joel profetak penitentzia elkarte-mailan egiteko eta bihotzez damutzeko deia egiten dio Jainkoaren herriari (1. ir.). Pauloren gonbidapena entzuteko prestatzen gaitu horrek: «Kristoren izenean eskatzen dizuegu, adiskidetu zaitezte Jainkoarekin; izan ere oraintxe da onginahi-garaia» (2. ir.). Ondoren, Jesusen adierazpena dator Ebanjelioan: limosna, otoitza eta baraua zein asmoz egin behar diren esaten digu; horrela, garbi ikusiko dugu penitentzia-motak ez dituela Elizak asmatu, baizik eta Jaunagandik hartu dituela (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 1.** liburuko 217-219. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Errautsaren ezaugarria

Gaurko irakurgaiek bihotz-berritzera gonbidatu gaituzte, Pazkorantz bidean jartzera, bertan biziera berriaren partaide egingo baikaitu Kristok. Elkarrekin kantatuz, egun hau berezia egiten duen errautsa hartzera hurbilduko gara.

*Aurrez bedeinkatutako errautsa ezarriko die zuzendariak ospakizunera bildu direnei, behar bada laguntzailearekin batera, bakoitzari esanez:*

### **Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona.**

*Edota:*

**Gogora zaitez hautsa zarela eta hauts bihurtuko.**

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

### **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesusekin bat egitea eguneroko bihotz-berritzerako eragile da eta bihotz-berritze bidea egiten ari garen seinale ere bai. Santuek izan zuten janari eta indar bera behar dugulako gerturatuko gara laster jaunartzera. Presta gaitezen esker onez.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Hartu dugun sakramentuak, Jauna,  
eragin diezagula Zuk atsegin duzun  
eta guretzat osasungarri den baraua egitera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## GARIZUMAKO I. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Pazko-jai handira eramango gaituen bidean sartu gara; kristau-elkartea bere bizi-iturri diren Jesusen heriotza eta piztuerako misterioen ospakizun nagusietara begira jarri da. Garizumako giroan, bihotz-berritzera eta gure sinesmena suspertzera dei egiten zaigu.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Jainkoak ez du bekatiaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiogun.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarri diguzuna: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztiduna,  
egizu, Garizumako urteroko jarduerak eraman gaitzala  
Kristoren misterioa hobeki ezagutzera  
eta berari dagokion eran bizitzera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.



## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Otoitzean, Kristoren misterioa hobeto ezagutu ahal izateko grazia eskatu dugu (*Otoitza*). Hain zuzen, Hitzaren liturgiak horretara bideratuko gaitu. Jesus Adam berrizat azaltzen digu, Jainkoaren adiskidetasunean eraberritutako gizadiaren burutzat (2. ir.). Tentatzaileari amore eman ez, lehen-bikoteak bekatua sarrarazi zuen munduan (1. ir.). Tentatzaile berari heriotzaraino gogor eginez, salbatu egin ditu Jesusek gizon-emakumeak eta bere bizia eman die (*Eb.*).

**B urtean** Gure Jainkoa gizon-emakumeak salbatzen dituen Jainkoa da, beraiekin ituna egiten duena. Uholdetik salbatutako Noerekin Jainkoak egindako hasiera hartako ituna (1. ir.) zirriborro bat izan zen; bete-beteko eta egiazko ituna Kristoren heriotzan eta piztueran Jainkoaren eta gizakiaren artean egindakoa izan zen (2. ir.). Jesus basamortuan Satanasekin tirabiran agertuz, Ebanjelioak zera adierazten digu: iritsia dela borroka nagusiaren eta betiko itunaren garaia (*Eb.*).

**C urtean** Garizumaren helburua «Kristoren misterioa hobeki ezagutzea» da (*Otoitza*). Alabaina, Kristoren misterioan fedez murgiltzen gara. Itun Zaharreko herriak zapalketatik salbatu zuen Jainkoaganako zuen fedez mintzo zaigu lehen-irakurgaia (1. ir.). Gure kristau-fedearen muina Jesus berpiztua da (2. ir.), Ebanjelioan Jainkoaren Semetzat azaltzen zaigun Jesus berpiztua; ez, ordea, tentatzaileak proposatzen dizkion gauza miragarriak eginez, Jainkoarentzat ohorea eta ospea eskatuz baizik (*Eb.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 227-235. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jaunartzeak erabat laguntzen digu tentaldiak garaitzen, indartu egiten gaitu eta. Izan ere, Jesusek argitzen gaitu adi, erne, bizitzeko, kristauei dagokien bezala. Gorets dezagun Sakramentu santua.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiak, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Hartu dugun ogi santu honek, Jauna,  
sinesmena bizkortzen digu,  
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;  
egizu, ikas dezagula  
egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten  
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## GARIZUMAKO II. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Pazko-jai handira eramango gaituen bidean gaude; kristau-elkartea bere bizi-iturri diren Jesusen heriotza eta piztuerako misterioen ospakizun nagusietara begira ari da. Garizumako giroan, bihotz-berritzera eta gure sinesmena suspertzera dei egiten zaigu.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damuturik bekaturen barkamena eskatuz.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, gure erruak garbitzen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guran bihotz garbia sortzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro ematen diguzuna: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu; emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria, gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Abrahamen deiaren kontakizunak (1. ir.) eta Jaunaren antzaldatzearenak (Eb.) ez dute, itxuraz, elkarrekin erlaziorik. Halere, San Paulok bata bestearekin nola lotu agertzen digu (2. ir.). Fedean aita dugun Abrahamek bezala, guztiok jaso dugu geure deia: Kristo antzaldatuan biziro distiratzten duen bizirako eta argirako deia jaso dugu, Semeagan seme-alaba izateko deia jaso ere.

**B urtean** Igande honetan bi mendi ageri dira gure begi aurrean: Abrahamek Jainkoari bere semea eskaintzen dionekoa (1. ir.) eta Jainkoak bere Semea aintzaz distiraturik errebelatzen digunekoa (Eb.). Abrahamek ez dio ukatzen Jainkoari bere semea; honela, Jainkoak gizon-emakumeekiko duen maitasun neurrigabearen irudi bihurtu da (2. ir.). Jesusen antzaldaketan, piztueraren munduko atea erdi-irekitzen digu Jainkoak, Kristoren heriotzak hartarako bidea ireki baitigu.

**C urtean** Fededunon aita da Abraham. Hitza sinetsi du; horrek, berarekin ituna egin duen Jainkoaren adiskide izateko balio izan dio (1. ir.). Bere Semea antzaldaturik aurkezten digunongandik fede-jokabide bera espero du Jainkoak (Eb.); fede honek sarraraziko baikaitu, ez lurralde aberats batean, piztueraren eta aintzaren munduan baizik (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 248-255. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesus da Legearen betea eta profetarik handiena. Beti harritu gaitzake, beti gerta daiteke berria bihotza zabaltzen badiogu. Bat egin dezagun berarekin Jaunartzean.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*



## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itxaropenez, esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristok elkarren senide egin gaitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

*Guztiak, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Misterio aintzagarriak hartu ditugunok  
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,  
lur honetan gaudela ere  
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## GARIZUMAKO III. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Ongi-etorri, senideok, eta fedea bildu gaituenok elkartu gaitzala maitasun Espirituak. Igandeko batzarrak beti eta, batez ere, Garizumaldian Bataioaren oroimena berritzen du bakoitzarengan eta elkartarengan. Grazia handi horregatik eskerrak emanez hasiko dugu gaurko ospakizuna.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Ospakizun hau hastean, eska diezaiogun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

- Jesus Jauna, gizadiaren salbamera gurutze-habeen ezarri zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, gugatik nekaldia jasan zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu, bekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitzen gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eraman zenituen: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko errukitsua, on guztien iturria,  
baraua, otoitza eta erruki-egintzak  
ipini dizkiguzu geure bekatuen sendabide;  
begira bihotz onez geure ahuleria aitortzen dugunoi  
eta bizkor gaitzazu zeure erruki handiaz  
bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean**

Bizitzeko ura behar-beharrezko delako esperientzia gogorra egin dute israeldarrek basamortuan. Eta Jainkoa bere herriaren salbatzaile bezala agertu zaie, Moisesen bidez harkaitzetik ura ateraz (1. ir.). Baina gorputzaren bizirako ura baino gehiago da Jesusek Samariako emakumeari agertzen dion Espirituaren ur bizia (Eb.), hau da, pertsonaren barrenean fedea, maitasuna eta esperantza sorrarazten duen ur bizia (2. ir.).

**B urtean**

Jainkoak beretzat aukeratua zuen herriari bere legea jakinarazteko dei egin zion Moisesi; eta hitz gutxi hauetan bil zitekeen lege hori: Ni naiz Jauna zure Jainkoa (1. ir.); ondoren, bere Semea bidali zien gizon-emakumeei bere onganahia eskainiz (Jn 1, 17). Jesu Kristo, bere gizatasun santuan Jainko biziaren tenplu den hori, apaltasunean eta eskandalozko gurutzean etorri da (2. ir.); bere misioaren dudagabeko zeinu hau emanez, ordea: bere piztueraren zeinua, alegia (Eb.).

**C urtean**

Lehenengo bi irakurgaiak Itun Zaharreko gertaera handienetara garamatzate: Jainkoa Sinai mendian agertu zitzaion Moisesi eta beraren izena «Naizena naiz Ni» zela esan zion (1. ir.) eta bere herria askatzera bidali zuen, askatasunaren lurraldean sarrarazteko (2. ir.). Ebanjelioak penitentzia egitera deitzen gaitu guztiok; bestalde, irakasten digu hondamendi naturalak edota gizon-emakumeen indarkeria ez ditugula hartu behar horiek jasaten dituztenen kontrako Jainkoaren zigortzat, baizik eta Aitaren eskuetan etengabe irauteko dei maitagarritzat.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 269-280. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesus da gure salbamenerako janaria. Erabat ase gaitzakeena. Berarekin bat egiteak apaltasunez, eskuzabaltasunez eta konpromisoz bizitzen laguntzen digu. Kristau-jokabide bikainak dira horiek. Gorets dezagun pozez eta itxaropenez.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jaunaren otorduko mahaira hurbildu aurretik, esan dezagun elkaturik berak irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Betiko salbamenaren agiria da, Jauna,  
 lur honetan jadanik,  
 hartu dugun zerutar ogia;  
 egizu, orain sakramentuz ospatu duguna  
 egintzetan bete dezagula.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
 eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
 eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
 Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
 bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.



## GARIZUMAKO IV. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Garizumako laugarren igande honetan ere, Eukaristiaren aukerarik izan ez arren, Jaunaren eguna, igandea, ospatzera pozik bildu gara kristauok. Pazko-gau santuan berrituko dugun Bataioa eskertzeko eta barneratzeke aldi bikaina dugu Garizuma: Jainkoagana bihotz berriz gerturatzeke balio digun aldia.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeke.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, onginahi hutsez sal**bat**zen gaituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure graziaz aber**ast**en gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea era**ku**tsi diguzuna: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, zure Hitzaren bidez miragarriro adiskidetu zenituen gizon-emakumeak Zeurekin; egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai, presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Lehen-irakurgaiak David Israelgo errege nola gantzutu zuten deskribatzen digu (*1. ir.*). Horrela, salbamen-historian data inportantea gogorarazten digu: Jesus Daviden semea da eta, aldi berean, Jainkoaren Semea. Ebanjelioan, jaiotzatik itsua den bati ikusmena eman ondoren, Jainkoaren Seme bezala agertzen da (*Eb.*). Guri dagokigunez, bere argiaz betetzen gaitu, Apostoluaren bidez argiaren seme-alabei dagokienez bizitzera gonbidatzen gaituelarik (*2. ir.*).

**B urtean** Lehen-irakurgaiak, Jainkoak gogor jotzen du Israel beronen leialtasun-faltagatik; baina hirurogeita hamar urteren buruan, emana zion lurraldera eraman zuen (*1. ir.*). Jainkoak gizon-emakumeekiko duen maitasun mugagabearen irudi da hori, bere Semearen gurutzeaz dakarkion salbamenaren irudi (*Eb.*). Izan ere, fedearen bidez, Semeak berekin bat egiten baititu gizon-emakumeak bere piztueraren eta igokundearen aintzan (*2. ir.*).

**C urtean** Berrogei urtez basamortuan ibili ondoren, agindutako lurraldean sartu zen Israel. Han ospatu zuen herriak lehen-aldiz Pazkoa, Josueren liburuan irakurriko dugunez (*1. ir.*). Jainkoa leiala da agindutakoa betetzen, errukitsua baita mugagabe. Hori irakasten digu, zirrara sortzen duten hitzekin, Aita errukitsuaren eta bi semeen parabolak (*Eb.*). Horixe bera gogorarazten digu Paulo apostoluak ere, eta Jainkoarekin bakeak egitera gonbidatzen gaitu (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 298-308. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Bizia ematen duen janaria hartuko dugu laster. Jesus bera ematen zaigu janari. Presta gaitezen berarekin bat egiteko, esker-otoitza eginez.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Guk ez dakigu Jainkoari zer eta nola eskatu; baina bihotzean dugun haren Espirituak otoitz hau jartzen digu ezpainetan:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu  
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;  
 argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,  
 Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan  
 eta Zu benetan maita zaitzagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
 eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
 eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
 Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
 bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## GARIZUMAKO V. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Garizumaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Igandero, elkartean biltzen garenean, gurutzea dugu batzarraren aurrean. Gaur, senideok, gurutze horrek argi bereziz distiratzen du, Pazkoaren gailurra eta hurbiltasuna adieraziz. Begira diezaiozun fedez Kristori, Gurutzearen bidez salbamena eta betiko bizia ekarri dizkigun Jaunari.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

- Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen zaren Senidea: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gu bizi-araziz goretsia zaren Jainkoaren Semea: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztuera eta Bizia: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko gure Jauna, zure Semeak bere bizia emateraino maite izan zuen mundua; egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.



## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Lazaroren piztueraren Ebanjelioak Jesusen piztuera eta geurea iragartzen dizkigu; horretxek ematen dio batasuna ere gaurko Mezari. Bere Semeari Lazaro hilen artetik deitzeko ahalmena eman dionak (*Eb.*) biziaren Espiritua ezarri digu (*2. ir.*). Ezekiel profetak Israeli eman zion hitza bete du Jainkoak Espiritu horren bidez Pentekoste-egunean (*1. ir.*), baina antzina pentsa ez zitekeen maila eta hedadura emanez: salbamena ez zaio jadanik herri bakar bati eskaintzen, Jaunaren Espiritua onartzen duten gizon-emakume guztiei baizik.

**B urtean** Jeremias profetak Jainkoak bere herriarekin egin nahi duen ituna iragartzen du, gizon-emakume guztien bihotzean bere legea ezarriz eta bekatuak barkatuz (*1. ir.*). Itun berri honen ordua Jesusen nekaldikoan jo zuen (*2. ir.*), gurutzean jaso zelarik gizon-emakume guztiak beregana erakarri baitzituen Jesusek (*Eb.*).

**C urtean** Isaias profetak Jainkoaren asmo handia, hau da, gauza guztiak berritzeko asmoa iragartzen digu (*1. ir.*). Kristok egingo zuen berrikuntza hori; izan ere, bere heriotzaz eta piztueraz gizaki berria egin baitzuen, eta honen eredu bete San Paulo da (*2. ir.*). Kristo da berrikuntza oren iturri agorrezina eta, Jainkoarekiko desleial izanez, adultero izan den edozeinen bekatua barkatzen du berak (*Eb.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 326-336. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesus da zerutik jaitsitako ogia. Ogi hau jaten duena betiko biziko da. Bera da munduaren bizia. Presta gaitezen esker onez beterik.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Eska diezaiogun zeruetako Aitari geure bekatuen barkamena eta eman diezagula bihotz zabala, guk ere geure zordunei barkatzeko:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiak, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jainko ahalguztiduna, egizu,  
orain Kristoren Gorputz Odolekin bat egin dugunez gero,  
haren gorputzeko atal izan gaitezela beti.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

### Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

### Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

### Hasiera

*Aurrez bedeinkatutako erramu-adarrak eskutan dituela bilduko da kristau-batzarra elizan bertan edota atarian. Kantu egoki batekin ospakizuna hasiz.*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristo Jaunak eman diezagula bere grazia eta maitasuna.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurbil dugu Pazko-jaiak. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta piztueraren misterioari, Eliza osoarekin bat eginik hasiera emateko ospakizuna egitera bildu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zen Jauna Jerusalemgo hiri santuan. Ospa dezagun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroitzapena, eta jarrai diezaiozun geure Jaunari, grazia lagun dugula haren gurutzean bat eginda, haren piztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

*Ospakizuna atarian hasi bada kantu bat abestuz sartuko dira elizara. Bestela, zuzenean damu-otoitza egingo da.*

## Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Jo dezagun guk ere Jaunarengana, eta eska diezaiogun bere errukiz berri gaitzala Aste Santuaren hasiera honetan.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, bekaturik izan ez arren gure bekatuen zama hartu zenuena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure bekatuen barkamenarako gurutzean odola isuri zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, hilen artetik piztuz heriotza garaitu zenuena: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitza.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,  
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,  
gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;

egizu, arren, har ditzagula gogoan  
 haren nekaldiko irakaspenak,  
 haren piztueran parte izan dezagun.  
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A B C urteetan** Jesusen azken afaritik hilobiratze bitartekoa dakarren Nekaldiko pasarteak (*Eb.*) bikain argitzen dute aurreko bi irakurgaiak eta salmoak. Nekeetako Zerbitzariaren kantikak (*1. ir.*) eta 22. [21] salmoak Kristok bere Nekaldian izan zituen sentimenduekin bat eginarazten digute: sufrimenduan eta gizon-emakumeek bazterrera utzia izatean bai, baina, denbora berean, baita garaipenaren segurtasunean ere. Ondoren, Kristo salbatzaileari buruzko kantika dator, San Paulok bere gutunean jaso: Jainkoaren Semea heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino, beheratu zen; horregatik jaso zuen Jainkoak gauza guztien gainetik (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 1. liburuko 362-398. orrialdeetan daude egun honetakoak. Beste laguntzaileak ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta, ondoren, hiru lagunen artean Nekaldia.*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Fede-aitormena

*Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: egiazko Jaunartzeak Jesusen sentipen eta jokabideak geureganatzea eskatzen du. Dena eman duen Jesusekin bat egitea, benetako batasuna sumatzea garrantzitsua da igande honetan: dena eman duen Jesus da gure Jauna Jainko Aitaren aintzarako.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## **Jaunartzeko ohikunea**

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiak, leku bakoitzean ohienez, bakea emango diote elkarri.*



*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.*

*Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zure misterio santuaz indarberriturik otoizka gaituzu, Jauna:  
zure Semearen heriotzari esker,  
sinesten dugun bizi betea itxarotea eman diguzun bezala,  
emaguzu, haren piztueraz, bizi hori eskuratzea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

## **Bukaerako oharra**

Bagoaz Jesusen eskutik. Aukera ugari izango dugu aste honetan Kristoren heriotza eta piztuera gertaberritzeko. Ahalegin berezia egin behar guke guztiok larunbat santu gauean Kristoren Piztuera ospatzera biltzeko. Hori da, dudarik gabe, urteko elizkizun nagusia.

*Adierazi elkarre horretan edo gertuko zein elkartetan izango diren Pazko hirurreneko ospakizunak.*

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazko egunari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

### **Pazko-zuzia pizteko ohikunea** (*Nahi bada erabiltzekoa*)

*Bezpera arratsean Pazko Gaubeila ospatu ez den elizetan, Pazko-zuzia pizteko ohikune hau egin daiteke damu-otoitza utzita:*

Kristau senide maiteok: Bart gauean, Pazko Gau santuan, kristauak dauden munduko bazter guztietan Kristoren piztueraren berri ona entzun da. Pazko Gau santuan, Pazko zuzia piztua izan da mundu guztian: zuzi hori Kristo piztuaren ezaugarri da. Pazko Gau santuan Aleluia abestu dute Jainkoarekiko gorespenez eta esker onez. Gure Elizan Pazko Gaubeila ospatu ez bagenuen ere, pazko-zuziak toki berezia izatea nahi dugu, bihotzaren eta espirituaren ilunak bere argitasunez argi ditzan. Horregatik Pazko-eguneko ospakizuna hasterakoan, handikiro eta jai-giroan piztuko dugu.

Jauna, zure izenean sagaratutako pazko-zuzi honek  
 argi egin dezala itzali gabe,  
 bekatuaren eta heriotzaren iluna suntsitzeko.  
 Argi honek, Kristo gogora ekar diezagula,  
 bera baita zure Seme Piztua, itzalik gabeko argia,  
 hilobitik zutituta gizadi osoarentzat distira egiten duena.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

*Pazko-zuzia piztu bitartean, abes daiteke sarrerako kantuaren beste zatiren bat edota beste kantu egoki bat («Jesus, munduko argia», adibidez).*

---

**Damu-otoitza** (*Pazko-zuzia pizteko ohikunea egin ez bada*)

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Jesusek bere heriotzaren eta piztueraren bidez barkamena eta bakea lortu digu. Pazko-misterio hau ospatzen hasi aurretik, eska dezagun Jainkoaren barkamena:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, zeure piztueraz bekatua eta heriotza desegin dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure piztueraz izadi osoa eraberritu duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure piztueraz biziei alaitasuna eta hildakoei bizia eman diezuna: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, egun honetan,  
heriotza garaitu duen zure Seme bakarraren bidez,  
betiereko biziaren ateak zabaldu dizkiguzu;  
egizu, gure Jaunaren piztuerako festaburua ospatzen dugunok,  
zure Espirituak eraberriturik, biziaren argira piztu gaitzela.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A B C urteetan** Piztu da Kristo: pazko-mezu hori mezako irakurgai guztietan ageri da, batzuetan neurritsu, besteetan distiratsu. San Joanek, gure fedearen testigu bihurtuz, hutsik dagoen hilobi-ertzera garamatza (*Eb.*); San Pedrok, berriz, seguru baieztatzen du Jainkoak Jesus piztu duela, berarekin jan eta edan baitu piztueraren ondoren (*1. ir.*). San Paulok kristau-pazkoa juduen pazkoarekin lotzen du, Kristo egiazko pazko-bildots bezala aurkeztuz (*2. ir.*); bestalde, piztuak garenok haren biziera berriaren arabera bizi behar dugula gogorarazten digu eta, Kristoren etorreraren zain, aurrera begira bizi behar dugula (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 441-444. orrialdeetan daude igande honetakoak. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesus piztuarekin jaunartzean bat egitea bizitzeko, hazteko, zoriontsu izateko prest egotea da. Pazkoa poza da! Poztu gaitezen eta eskertu dezagun jasotzera goazen dohaina.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Oi Jainko, zaindu zeure Eliza maitasun handiz,  
pazko-sakramentuez biziberriturik  
piztueraren argira irits dadin.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 114. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.

✠. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.



## II. PAZKO IGANDEA

edo, Jainkoaren Errukiarena

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

✠. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Gaur igandea da. Pazko-egunean bezala, gaur ere Jesus gure artean agertuko da. Hemen da, gure artean dugu. Guri, noski, apostoluei bezala, pozik eta alai egotea dagokigu. Espirituaren dohaina eskatuko dugu, eta ziur egon, maitasunezko eta bizitza berrizko notizia hau hots egitera bidaliak sentituko gara ospakizun honetan.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Jesusek bere heriotzaren eta piztueraren bidez barkamena eta bakea lortu digu. Pazko-misterio hau ospatzen hasi aurretik, eska dezagun Jainkoaren barkamena:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, hilen arteko Lehen Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Beti errukior zaren Jainkoa,  
pazko-jaietan suspertu egiten duzu zeure herriaren fedea;  
indar ezazu gudan Zeuk emandako grazia,  
hobeto uler dezagun,  
nolako Bataioaz garbitu gaituzun,  
nolako Espirituaz biziberritu  
eta nolako odolaz erosi.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean**

Pazko-zortzigarreneko igandeak biok iradokitzen ditu batera: batetik, apostoluei agertzen zaien Kristoren piztuera eta, bestetik Pentekoste-biharamunean kristau-elkarteak bizi duen biziera, hau da, ogia zatitzean bere betera iristen den fede-elkartea, biziera-elkartea, otoitz-elkartea (1. ir.). Atzo bezala gaur ere fedean eta maitasunean errotua delako bizi da elkarte poz-jauzika, probaldi gogorrenetan bizi arren (2. ir.).

**B urtean**

Ebanjelioaren pasarteak ematen dio bere esanahia Pazko-zortzigarreneko igande honi: beraren piztueraren oroitzapena egiteko elkartu diren bere senideen artean dago Kristo, beraien fedea indartuz (Eb.). Jesus piztuagan duten fede horrek «bihotzez eta gogoz» bat egiten du fededunen taldea (1. ir.). Fede horren indarrez garaitzen ditu kristauak kontra ari zaizkion sakabanatze-indarrak eta San Joanek «mundua» deitzen duenaren ukapenerako joera.

**C urtean**

San Tomasi Jesusek egiten dion agerpena da Pazko-zortzigarren honetako irakurgai berezia; halere, azpimarratzekoa da bere piztueraren arratsean Jesusek bere apostoluei egiten dien lehen-agerpena ere: «Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet» (Eb.). Elizari egiten zaion misio-deia da. Baina Elizak ezin du bere egitekoa bete beraren seme-alabak apostoluekin eta bereziki Pedrokekin (1. ir.) bat eginik bizi ezean, eta bere bidean begiak betiko bizia den harengan ezarriak izan ezean.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 459-467. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Pazkoa loratu da eta askatuak izan gara bekatuaren eta heriotzaren esklabotzatik. Jainkoak salbatu egin nahi gaitu, baina gure lankidetzan eskatzen digu. Gure ahultasun eta zalantzen erdian ere zabal diezaiozun bihotza gure Jaun eta gure Jaungoiko den Jesusi.

*Hiru eratarik egin daitezke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jesusek irakasten digunez, eska diezaiogun zeruetako Aitari, etor dadila beraren erreinua gure gizartera:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo piztuaren pozez, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jainko ahalguztiduna, egizu,  
pazko-sakramentuetan hartu dugun graziak  
iraun dezala beti gure bihotzean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 114. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.

✠. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

### III. PAZKO IGANDEA

#### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Kristo Piztua gure artean dago egiaz. Ezagutu dezagun batzarraren erdian; entzungo dugun Hitz ederrean; elkarbanatuko dugun Ogi bizian. Eta eraman dezagun gero geurekin, goazen toki guztietan Kristoren bizia izan dadinugar eta bultzagarri.

#### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Jesusek bere heriotzaren eta piztueraren bidez barkamena eta bakea lortu digu. Pazko-misterio hau ospatzen hasi aurretik, eska dezagun Jainkoaren barkamena:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, Itun Berriko Apaiz Nagusia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Jainkoaren Eliza santua eraikitzeko harri bizi egiten gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guri Espirituaren dohaina bidaltzeko, Aitaren eskuinaldera igo zarena: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, poztu dadila beti  
biziberritu eta gaztetu duzun zure herria;  
egizu, zure seme-alaba ordeko izatea  
berreskuratu izanaz pozturik,  
usterik sendoenaz itxaro dezagula piztuera-eguna.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.



## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Jesusen agerpenen kontakizunetan hunkigarriena irakurriko dugu gaur: Emausko ikasleei egindako agerpena. Liburu Santuek diotena azaldu ondoren, ogia zatituz agertzen zaie (*Eb.*). Lehenengo bi irakurgaiei dagokienez, Pedroren testigantza kontatzen digute; batetik, beraren ministerio apostolikoaren hasierakoa, Pentekoste-egunekoa (*1. ir.*), eta, bestetik beraren bizitzaren bukaerakoa, Erromatik idazten duen gutunekoa (*2. ir.*). Azken honetan kristauen fedea eta esperantza sendotu eta baietsi nahi ditu, Kristoren odolean salbatuak izan direla gogoraraziz.

**B urtean** Jesusek Pazko-arratsean ikasleei egindako agerpena deskribatuz, bera ikusten uzten diela eta beraiekin jaten duela azpimarratzen du ebanjelioak (*Eb.*). Dudagabeko esperientzia honetan oinarrituko da apostoluen fedea (ik. Piztuera-igandea *1. ir.*); esperientzia horretatik datorkio herriari hitz egiteko adorea (*1. ir.*); Joan ere, bere eskuez biziaren Hitza ikutu duelako (*2. ir.*) murgildu da hain sakon Kristo salbatzailearen misterioan (*2. ir.*).

**C urtean** Kristo berpiztua hurbil-hurbilekoa da, alde batetik, ikasleei arrantzutik itzuli direnean itsasertzean otordua prestatu diena (*Eb.*), eta, bestetik, Santu-santua, aingeruek zeruan Jainko bizi bezala adoratzen dutena (*2. ir.*). Horretaz guztiz komentziturik daude Pedro eta apostoluak; horregatik ari dira agintarien aurrean Jesusen piztueraz testigantza hain biziki egiten eta horregatik aldarrika dezakete kristau-fedearen desafio hau «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena» (*1. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 480-490. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jaunaren Pazkoaren misterioak gainditu egiten du gure adimena, baino gure bihotzarekin gai gara bera onartzeko. Duintasunez betetzen gaituen dohaina hartzeko presta gaitzen.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkaturik guztion Aitari:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo piztuaren pozez, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Begira bihotz onez, Jauna, zeure herriari  
eta, betiereko biziaren sakramentuetan eraberritu duzunez,  
egizu, irits dadila  
aintzaz beteko den haragiaren piztuera hilezkorrera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

### Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

### Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## IV. PAZKO IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Kristoren Piztuera ospatzen jarraitzen dugu eta gaurkoan beraren Artzain on izateari begiratzen diogu. Berak zaintzen gaitu, berak babesten. Badakigu zenbat egin duen gure alde! Bokazio guztien alde otoitz egingo dugu igande honetan. Jaunak dei egiten jarrai dezan eta leial erantzungo diotenak falta ez daitezten.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak eta hurbildu gaitezen uste osoz geure Artzain Onagana, haren barkamena lortzeko:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, zeure ardiak ezagutzen dituzun Artzain Ona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, ardi galduaren bila etsi gabe zabiltzana: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiko biziko larre gurietara eramaten gaituzuna: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
eraman gaitzazu zeruko pozetan partaide izatera,  
fededunen artalde apal hau hel dadin  
beraren artzaina, heriotza garaiturik, iritsi den ospera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean**

Kristoren Pazkoa heriotza eta piztuera da. Gaur Jesusen opariaren oroitzapenak du lehentasuna, bai San Pedoren irakaspenean bai Artzain Onaren ebanjelioan. Jainkoak Jesus Jaun (*1. ir.*) eta gure arimen Artzain (*2. ir.*) egin badu, Isaiasen liburuan iragarritako Nekeetako Zerbitzaria delako da; bere «gorputzean gure bekatuak gurutzera eraman baititu» (*2. ir.*). Bere opariaz biziaren iturburua ireki digu (*Eb.*). Beraren izenean bataiatuak garenok geure bekatuen barkamena eta Espirituaren dohaina (*1. ir.*) hartu ditugu.

**B urtean**

Ebanjelioan irakurtzen dugun Artzain Onaren parabolak indar berezia du aste honetan; izan ere, bere ardien alde odola isuri duen Jesusen borrokaren oroitzapena egiten dugu; «bere bizia bere gogoz emateko eta berriro hartzeko ahalmena» (*Eb.*) duen Jesusena, alegia. Heriotzaren garaile da Jesus; beronen izenean ematen dio Pedrok elbarriari ibiltzeko ahalmena (*1. ir.*); Jesusek azaltzen digu Jainkoaren adiskide izateko bidea: gaur fedean, bihar aurrez aurre «den bezalakoa ikusiko dugunean» (*2. ir.*).

**C urtean**

Bildots eta Artzain da Kristo aldi berean: bere odolaz gure bekatuak garbitu dituen pazko-bildotsa (*2. ir.*); bestetik, bere ardien alde bere bizia ematen duen Artzaina da (*Eb.*). Irudi guztien gainetik, Jainkoaren Semea da (*Eb.*), santuek zeruan adoratzen dutena (*2. ir.*). Jesusen izenean jentilei salbamena iragartzeko ekin diote apostoluek misio-ekintzari. Honetan mila kontraesan izan dezakete; halere, «Espiritu Santuagan pozez beterik bizi dira» (*2. ir.*) Jesusen ikasleak; izan ere, bidearen bukaeran Jainkoa ikusten dute, beren begietako malko guztiak lehortuko dizkiena (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 503-510. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: larre gurietara garamatzen artzaina da Jesus. Bera hartzean, berri dezagun hari jarraitzeko gogoia.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*



## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Artzain onaren otzantasunez, emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Artzain Ona, zaindu maitasunez zeure artaldea;  
eta eraman betiko larre gurietara  
zeure Semearen odol baliotsuaz salbatu dituzun ardiak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

### Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

### Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## V. PAZKO IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Jaunaren izenean biltzen garenon artean hemen da bera gure erdian. Berarekin bat egiten dugu horrela, berak gurekin bat egiten duen moduan. Inoiz baino presentego egiten da Jesus Jauna Igandeko batzarrean; zabal diezaiogun bihotza.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak eta hurbildu gaitezen uste osoz geure Artzain Onagana, haren barkamena lortzeko:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, gu salbatzeagatik gizon egin zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guri bizia emateko hil eta piztu zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu Aitagana eramateko zerura igo zinena: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
burutu ezazu gugan beti pazko-sakramentua,  
Bataioaren bidez biziberritu dituzunek  
zure laguntza eta babesari esker fruitu ugari eman dezaten;  
eta egizu, betiko biziaren zorionera hel daitezela.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Ostegun Santuan Jesusek ikasleei esan zizkien hitzak dakartza gaurko ebanjelioak. Baina «Ni naiz egia, bidea eta bizia» esaten entzutean pazkoko Berpiztuari ari gara entzuten (*Eb.*). Beste bi irakurgaiak garrantzizko irakaspena dakarkigute Elizaz: Jainkoaren herria da Eliza eta beraren atal guztiak «errege-apaiz» dira (*2. ir.*). Dena den, era askotako ministerioak daude Elizan elkartearen zerbitzurako. Esku-ekarpenak ministerio hauetako garrantzizkoen sarten du fededuna (*1. ir.*).

**B urtean** Damaskoko bidean bihotz-berritu ondoren eta beraren misioa elkarteak jatortzat eman zezan, Paulok beste apostoluak ikusi nahi dituela agertzen digu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). Ondoren, San Joan mintzo da. Jesusekin bizi izan duen adiskidetasunean lortutako bere irakaspen guztiaren laburpena ematen digu lehenik: Sinetsi Jesu Kristogan eta maita ezazue elkar, berak agindu digunez (*2. ir.*). Gero, mahastiaren parabola kontatzen du: «Ni naiz mahatsondoa –dio Jesusek– eta zuek aihenak» (*Eb.*). Haren biziaren bizi gara.

**C urtean** Lan apostolikoa, aintzaren ikuspena eta Kristorekiko adiskidetasuna: horra igande honetako hiru irakurgaien ezaugarriak hurrenez hurren. Hiru alderdi hauek bizi behar dira kristau-esperientzia bere osotasunean bizi ahal izateko. Apostoluek adiskidetasun-ordu berezi-berezia bizi izan dute Jaunarekin Ostegun Santu arratsean, senide arteko maitasunaren agindua eman dienean (*Eb.*). Kristorekin izandako esperientzia pertsonalak eta goiko Jerusalem itzarroteak (*2. ir.*) eman diete kemena San Paulori eta lankideei Jesusen izenean jasan dituzten probaldietan (*1. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 523-530. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa goastera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Jesusen irakaspenak eta eredia aberasgarri ditugu, askatzen, zorientsu egiten, salbatzen gaituelako. Eukaristiako ogian onartzean, utz diezaiogun bere erako egin gaitzan.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,  
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.



## VI. PAZKO IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Jauna gure artean dagoela jakinik bildu gara senideok. Senide izate horretan sakondu nahi dugu, gure arteko lokarriak sendotu, bidelagun garela ospatu. Gaixoen Mundu Jardunaldian otoitz berezia egingo dugu: Kristoren piztueraren indar salbagarria osasun eta zorion emaile gerta dadin.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Jesusek bere heriotzaren eta piztueraren bidez barkamena eta bakea lortu digu. Pazko-misterio hau ospatzen hasi aurretik, eska dezagun Jainkoaren barkamena:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, hilen arteko Lehen Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztiduna,  
hilen artetik piztu den gure Jauna goresteko  
gogotsu ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;  
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna  
bete dezagula beti geure egintzetan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Lehenengo irakurgaiak Elizaren misio-zabalkuntza kontatzen digu: kristau-fedea, Felipe diakonoak hots eginik, Samariara iritsi da. Pedro eta Joan hara doaz elkarte berria esku-ezartzeaz eta Espiritu Santuaren dohainaz baiestera (1. ir.). Jesusek apostoluei Espiritua bidaliko ziela nola agindu zien dakar San Joanek Ebanjelioan (Eb.). San Pedrok Kristoren pazko-misterioa bizitzea aholkatzen digu, «gizakia zenez, heriotza jasan baitzuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik» (2. ir.).

**B urtean** Pedrok Kornelio erromatar ehuntaria nola bataiatzen duen kontatzen digu Apostoluen Eginak liburuak (1. ir.). Jesusen Elizak, lehenengo aldiz jentil bat bere baitan hartuz, denentzat irekia dagoela adierazten du, katolikoa dela, alegia. Segidan, Espirituaren dinamismoz beteriko Eliza hau senitarte bezala aurkezten digu San Joanek. Maitasunak bildutako Eliza da, hain zuzen. Agindu horixe hartu du bere Jaunagandik (Eb.). Jainkoagandik hartu duen bizi-izerdia da maitasun hori, Eliza Jainkoagana zuzentzen duena, Jainkoa maitasuna baita (2. ir.).

**C urtean** Lehenengo irakurgaiak aipatzen duen Jerusalemeko kontzilioa (49. urte inguruan egina) funtsezko data da Elizarentzat: judaismoa alde batera utzi eta jentil mundura jo zuen (1. ir.). Aurrerantzean Jerusalem berria izango da Eliza, mendeetan barna apal eta neke artean dabilena, garaiak beteko direnean aintzaz distiratuko duen esperantzaz (2. ir.). Bere lanen artean ere, bere izate sakonenean bakea bizi du; gizon-emakumeengandik ez, baizik eta beraren baitan Aitak, Semeak eta Espirituak duten presentziatik datorkion bakea (Eb.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 543-550. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Kristorekin bat eginda bizitzeko eta berari jarraitzeko ez da Espiritua baino laguntza ederragorik. Berak prestatzen gaitu Jesus jaunartzean hartzeko. Gorets dezagun Jauna.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itxaropenez, esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

## Jaunartze ondorengo otoitza

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren piztueran;  
ugari itzazu gudan pazko-sakramentuaren fruituak  
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

## Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

## Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## JAUNAREN IGOKUNDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Pazkoaldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Jaunaren Igokundea ospatzen dugu gaur. Gaurkoa dugu Pazkoko beste gertaera nagusia: Jesus Aitarengana goratua ikusten dugu, aintzatsu eta garaile. Kristorengan gertatua gertatzen zaigu: geure pozetan eta minetan altxatuak, piztuak, suspertuak gertatzen gara.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: begira diezaiogun zeruko Aitari eta eska diezaiogun presta gaitzala bere errukiz igandeko ospakizun honetarako:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, hilen arteko Lehen Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztueraa eta bizia: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztiduna, zure Seme Jesu Kristoren Igokundea garaipen gertatu da guretzat,  
eta haren gorputzeko garenok ziur itxaro dugu.  
gure buru denak duen aintza izango dugula geuk ere;  
egizu, egia honek bete gaitzala pozez eta esker onez.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*



A B C urteetan

Apostoluen Eginak liburuaren hasieran Jesus zerura nola joan den deskribatzen digu Lukasek (1. ir.). Ebanjelioan, berriz, aipatu bakarrik egiten du hori; halaxe egiten du Markosen arabeko ebanjelioak ere. San Mateok, bere aldetik, bere azken agerraldian Jesussek bere apostoluei gomendatu dien misioaren hitzak dakartza. Baina, San Paulorekin, estalkiaz barrura sartu eta «zeruetan Jainkoaren eskuinaldean eseria» kontenplatzen dugu Kristo, Elizaren buru, gizadiaren buruzagi, unibertsoaren jaun, beragan sinesten duten guztientzat bizi-iturri egina (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIAK 1. liburuko 563-569. orrialdeetan daude igande honetakoak. Bi aukera daude: A-B-C urteetako irakurgaiak har daitezke (urte bakoitzeko Ebanjelio ezberdinarekin) edota bigarren irakurgaiak aukera daiteke urte bakoitzerako. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Fede-aitormena

*Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Eskerrak emateko ohikunea

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Espiritu Santuaren dohaina isurtzen dio Jesussek Aitaren ondotik otoitzean elkaturik dagoen Elizari. Eskertu diezaiogun orain, Eukaristiako sakramentuan gurekin betiko geratu izana.

*Hiru erataraz egin daiteke esker-otoitza:*

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## **Jaunartzeko ohikunea**

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaziozue bakea elkarri.

*Guztiekin, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.*

*Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jainko ahalguztidun betierekoa, lur honetan bertan  
zerutar ondasunetan parte izatea ematen diguzu;  
egizu, gure kristau-gogoak jo dezala  
gure izatea Zurekin bat eginga dagoen leku hartara.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

### **Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

### **Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 113. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## PENTEKOSTE IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Espiritu Santuari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emaileak eman diezagula bere grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Gaur, Jesus piztuak Aitarengandik isurtzen digun Espiritu Santuaren etorrera handikiro ospatuz, burutzen ditugu Pazkoko jaiak. Maitasunaren jaia da hau: elkar ulermenaren maitasuna, gure elkarteak eraberritzeko behar dugun maitasuna, biziaren maitasuna.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Pentekosteko gertakaria ospatzen dugun igande honetan eska dizaiogun Jainkoari Espiritu babeslearen indarra:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, Itun Berriko Apaiz Nagusia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Jainkoaren Eliza santua eraikitzeko harri bizi egiten gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guri Espirituaren dohaina bidaltzeko, Aitaren eskuinaldera igo zarena: erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (95. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, gaur ospatzen dugun misterioaren bidez herri eta nazio guztietan santutzen duzu zeure Eliza osoa; isur itzazu Espiritu Santuaren dohainak mundu zabalera eta berri itzazu orain fededunen bihotzean Ebanjelioa hots egiten hasi zirenean errukiz egin zenituen mirariak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

A B C urteetan

Espiritu Santua apostoluei misiogintzarako eman zitzaiela azpimarratzen dute hiru irakurgaiak. Garbi agertzen dute hori, bai ebanjelio-pasarteak (EB.) bai Apostoluen Eginak liburuak Pentekosteko gertaeraz egiten duen azalpenak (1. ir.). San Paulok Erromatarrei egindako gutunean kristau bakoitzaren baitan Espirituaren ekintza aztertzen duen bezala (*Bezpera-arratsaldeko Mezako Gutuna*), eguneko Meza honetan era askotako ministerioak dituen Elizaren batasunaren printzipio bezala ageri da Espiritu Santua.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 1.** liburuko 597-603. orrialdeetan daude igande honetakoak. Bi aukera daude: A-B-C urteetako irakurgaiak har daitezke (urte bakoitzeko Ebanjelio ezberdinarekin) edota bigarren irakurgaia aukera daiteke urte bakoitzerako. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun, senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Fede-aitormena

*Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (96-97. or.).*

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Eskerrak emateko ohikunea

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa goastera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Espiritu Santuak irakasten digu dena. Bere dohainez beterik berritzen gara eta lankide bihurtzen Erreinuaren aldeko lanean. Gurtu dezagun Jauna.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (98-111. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Espirituak eraginik, esan dezagun Jesusek irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurtean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo piztuaren pozez, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jasoa daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.

Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zuk ematen dizkiozu Elizari, Jauna, zeruko dohainak;  
zaindu ezazu beragan Zeuk emandako grazia;  
indarberri ditzala gugan beti  
Espiritu Santuak berak guri emandako dohainak,  
eta hartu dugun janari santuak  
eraman gaitzala salbamenaren betera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

### **Pazko-zuzia itzaltzea** *(Nahi bada erabiltzekoa)*

*Jaunartze ondorengo otoitza bukatu, oraindik piztua dagoen pazko-zuzira hurbilduko da zuzendaria eta, argiaren liturgia prestatzeko, sarrera labur bat egingo du, honelatsu:*

**Zuzendariak:** Senideok, Pazkoaldiko denbora pozgarriari, hau da, berrogeita hamar egunez luzatu den egunari, bizia eman dion gau hartan, gure argia Kristo dela aldarrikatu genuen, pazko-zuzia pizterakoan. Bidelagun izan dugu argi hau berrogeita hamar egun hauetan eta pazko-misterioaren handitasuna gogorarazi digu. Gaur, Pentekoste-egun honetan, Pazkoaldia bukatu delarik, itzali egingo dugu pazko-zuzi hau. Sinale hau gabe geldituko gara orain, izan ere, piztu den gure Maisuaren irakaspena hartu dugu pazko-eskolan eta Espiritu Santuaren dohainaz situak izan gara; horregatik, guk



geuk izan behar dugu orain distirutzen duen «Kristoren argia»; munduan barrena gure senideen artean distirutzen duen zutabe argitsu izatera dei egiten zaigu, «agindutako lurraldera» garamatzen irteerako bidean senide horien gidari izateko. Liturgi urtean zehar, ikusiko dugu berriro pazko-zuziaren argi distiratsua, batez ere eliz bizitzako bi unetan: Bataioa dela-eta gure arteko seme-alabek biziko duten lehenengo Pazkoan, eta heriotza jasango dutenek, egiazko bizian sarturik, azkeneko Pazkoa ospatuko dutenean.

Kanta dezagun orain «Jesus, munduko Argia».

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

**Irakurleak:** Zu zara zuzentasun-eguzkia, errainu bedeinkatua, lehenengo argi-iturria, gauza guztien gainerik biziki irrikatua; indartsua zara, ulertezina eta adierazezina; ongiaren poza, betea izan den itxaropenaren ikuskaria; Kristo kreatzailea, goratua eta zerutarra, errege aintzaz betea, biziaren ziurtasuna: bete itzazu gure ahotsaren hutsuneak zeure Hitz ahalguztidunaz eta eskaini zeure Aita ahaltsuari gogoko izango zaion eskaritzat.

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

**Irakurleak:** Zu zara Aitaren aintzaren ospea, egiazko argiaren distira zabaltzen duzuna, argiaren errainua, distira ororen iturria. Zu, eguna argitzen duen eguna; Zu, egiazko eguzkia, etengabe argi-izpiz beterik azaltzen zarena eta gure zentzuetan Espirituaren sugarra pizten duzuna.

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

**Irakurleak:** Zu zara aitaren etxea apalki argizatzen duen argi-zuzia. Zu zara zuzentasun-eguzkia, iluntzerik ezagutzen ez duen artizarra, goizeko izar argitsua.

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

**Irakurleak:** Zu zara munduarentzat egiazko argi-emailea, eguzki betea baino argitsuagoa, erabateko argia eta eguna, gure bihotzeko zentzurik sakonenak argitzen dituzuna.

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

**Irakurleak:** Zu zara nire begien argia, Jaun ezti, nire egunetako babesa: argitu, Jauna, nire bidea, Zu baitzara gau luzean nire itxaropen bakarra. Zu zara nire kriseiluaren sugar bizia, oi Jainko, nire argia.

**℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.**

*Azkeneko gorapena abestu bitartean, zuzendariak itzali egingo du pazko-zuzia eta, jarraian, ondorengo otoitza esango du:*

**Zuzendariak:** Oi Kristo, gure Salbatzaile ezti, piztu itzazu gure argi-zuziak; egizu, argi egin dezatela etengabe zure tenpluan betiko argia zaren horrek indarturik; argitu daitezela gure espirituaren zoko ilun guztiak eta gugandik urrutiratuak izan daitezela munduko iluntasunak. Egizu, Zu ikusi, hausnartu eta bila zaitzagula, Zu bakarrik maita zaitzagula, Zu noiz etorriko itxaroten gauden bitartean. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

**℟. Amen.**

---

**Bedeinkapen-eskaria** (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 112. or.*).

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

**℟. Amen.**

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** (*Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 114. or.*).

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.

℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

## ERANSKINAK

## I. HASIERAKO AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

*Zuzendariak*

1



∇. Jaun-goi-ko gu-re Ai-tak e-ta Je-su Kris-to gu-re Jau-nak



e-man di-e-za-gu-te-la be-ren gra-zi - a e-ta ba-ke-a.

*Denek*

℞. Be - dein - ka - tu - a Jaun - goi - ko -




a, Je-su Kris-to gu-re Jau-na-ren Ai - ta.

*Zuzendariak*

2



∇. Gorets deza-gun Jau - na, eta denok batean bedein-ka



de - za-gun ha-ren i - ze - na.

*Denek*

℞. Be-dein-ka-tu-a Zu, Jau-na, o-rain e-ta be-ti.

## II. DAMU OTOITZERAKO BESTE ERA BATZUK

### 1.

*Isilune laburra egingo da. Eta, denek batera, beren bekatuak aitortuko dituzte:*

Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai, ene senideoi, bekatu egin dudala gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; *Eta, bularra joz, esango dute:* bai, bekatari naiz. Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei eta zuei ere bai, ene senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

*Eta jarraituko du:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

### 2.

*Isilune laburra egingo da. Eta, elkarrizketa moduan esango da:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Bekatu egin dugu eta.

℣. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. ℟. Eta salba gaitzazu.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

*Eta jarraituko du:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

*Damu-otoitz hau kantuz egin nahi bada:*

*Zuzendariak* *Denek*

∇. E-rru-ki, Jau-na. ⚡. Be-ka-tu e-gin du-gu e-ta.

*Zuzendariak*

∇. A-ger-tu gu-ri, Jau-na, zeu-re bi-hotz o-na.

*Denek*

⚡. E-ta sal-ba gaitza-zu.

### III. FEDE AITORMENA

#### 1.

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,  
Aita guztiz ahaltzua, zeru-lurren Egilea,  
ageri diren eta ez diren guztiena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo, Jainkoaren Seme bakarra,  
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.  
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,  
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;  
sortua, ez egin, Aitaren izate berekoa.  
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.  
Gu gizakiongatik eta gu salbatzeko jaitzi zen zerutik.

*Ondorengo hitzetan, gizon egin zen arte, denak makurtu egingo dira.*

Eta, Espiritu Santuaren egitez  
Maria Birjinagandik gorputz harturik, gizon egin zen.  
Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,  
oinazetan hila eta hobiratua.

Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Santuak esan bezala,  
 zerura igo eta Aitaren eskuinaldean jarririk dago.  
 Aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera,  
 eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Sinesten dut Espiritu Santua, Jauna eta bizi-emailea,  
 Aitagandik eta Semeagandik dena;  
 Aitarekin eta Semearekin batean agur eta gorespen berbera  
 hartzen duena eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.  
 Aitortzen dut Bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.  
 Itxaroten dut hildakoen piztuera  
 eta datorren munduko bizia. Amen.

## 2.

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztiduna,  
 zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,

*Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zena arte, denak makurtu egingo dira.*

Espiritu Santuaren egitez sortu  
 eta Maria Birjinagandik jaio zena;  
 Pontzio Pilatoren menpean nekaldia;  
 gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena;  
 infernetara jaitsi eta hirugarren egunean  
 hilen artetik piztu zena;  
 zeruetara igo eta Jainko Aita ahalguztidunaren  
 eskuinaldean jarririk dagoena;  
 handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,  
 Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna,  
 bekatuen barkamena,  
 haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

#### IV. LETANIA ERAKO ESKER OTOITZAK

##### 1. Aintza Zuri, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Eskerrak ematen dizkizugu, Jaungoiko gure Aita,  
Biziaren ogia den zure Seme Jesu Kristorengatik.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak* *Denek*

∇.Ain - tza Zu - ri, Jau - na. ⌘ Ain - tza Zu-  
 ri, Jau - na, e - ta es - ke - rrak Zu - ri!

Zuk beti prest dituzu guztiontzat  
 behar ditugun janari-edariak,  
 eta orain gertu daukazu guretzat  
 betiko bizia ematen duen ogia,  
 Jesu Kristo zure Semearen gorputz santua.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

⌘. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Elkarrekin jango dugun Eukaristiako ogia  
 gari-ale askotatik egina izan den bezala,  
 horrela gu ere, zure Eliza osotzen dugunok,  
 sinesmen eta maitasun berak bil gaitzala  
 lurraren alde batetik besteraino  
 zure Erreinuko batasunean.



∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Eskerrak, bai, Jaungoiko gure Aita,  
baden, badatorren eta etorriko den  
zure Seme, Jesu Kristo, gure Jaunarengatik.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

## 2. Bedeinkatua Zu, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Zuk egin duzun guztia  
gure eskuetan jarri duzu, Jauna,  
itxaro dugun lur berria bideratzen  
Zurekin batera lan egin dezagun.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak*



∇. Ho-rre-ga - tik, be-dein-ka - tzen zai-tu - gu:

*Denek*



✠. Be-dein-ka-tu - a Zu, Jau - na, gu-re Jain-ko - a!

Zure Seme Jesu Kristo eredu jartzen diguzu  
eta haren antzera hobeak izaten saiatzera dei egiten.  
Beraren bidez eta berarekin gizaki berri eginik,  
betiko biziaren betera eraman nahi gaituzu.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:

✠. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

Zure Elizaren batasunean parte izatera  
deitu gaituzu,  
Zuk agindutako gizadi berria  
eraikitzen joan gaitezen.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:


✠. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

### 3. Eskerrak Zuri, Jainko

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Eskerrak Zuri, Jainko gure Aita:  
zure Seme Jesu Kristo,  
Espiritu Santuaren egitez,  
gure giza haragiz jantzita bidali diguzu.  
Eta hura ikusirik,  
harengan Zu ikusi ahal izatea eman diguzu.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:*



∇. Ho - rre - ga - tik, bihotzez e - sa - ten di - zu - gu:



✠. Es-ke - rrak Zu - ri, Jain - ko, gu - re Ai - ta!

Jesu Kristo, Gizaki berria, Espirituaren indarrez,  
on egiten, gaitzak hartutakoak sendatzen  
eta behartsuei Berri Ona hots egiten igaro zen.  
Eta guk, haren antzeko izanik,  
haren urratsei jarraitzea nahi duzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

Zure Semea guregatik heriotzara emanik,  
Espirituaren indarrez hilen artetik berpiztu  
eta diren guztien Jaun ezarri duzu.  
Eta guri berarekin betiko bizi ahal izatea eman diguzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

#### 4. Aintza Aitari

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Goresten eta bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Aita,  
zure Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*



∇. Es-ke-rrak Zu-ri, Ai-ta o-na.      ✠. Ain-tza Ai-ta - ri, e -



ta Se-me-a - ri, e - ta Es-pi - ri - tu San-tu - a - ri!

Zugandik hartu ditugun gauza on guztiengatik  
eta gizakiari eman diozun Espirituaren dohainarengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Lurra emankor egiten duten eguzki eta urarengatik,  
eta gizakiaren lanak sortu dituen  
tresna eta aurrerapen guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Gure familietako maitasunarengatik  
eta giza bizitzako lagunarte-  
eta solidaritza-ezaugarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren irudiaren arabera,  
gu zure antzeko nahi gaituzulako:  
santu, on-on eta errukitsu,  
eta hori lortzeko ematen dizkiguzun grazia guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuarengan,  
gure atsekabe eta pozaldiek, gure ezbehar eta garaipenek,  
argi berria hartzen dute.  
Salbamen-misterio horren ondorio pozgarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren erospenari esker,  
 izadi osoa erdiminetan dago  
 zeru berriak eta lur berria itxaroten.  
 Zure dohain dugun betiko biziaren itxaropenak  
 guregan eta munduan eragiten dituen  
 giza aurrerapide eta maitasun-egintza guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

## 5. Gora Zu: I

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Jesus Jauna,  
 Zu zara ilunpeak desegiten dituen Argia.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak* *Denek*



✠. Ho - rre - ga - tik e - sa - ten di - zu - gu: ✠. Go - ra

Zu, go-ra Zu, be - dein-ka-tu-a Zu, es-ke-rrak Zu - ri!

Zu zara gezur-bidetik aldentzen gaituen Egia.

✠. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure pausoak zuzentzen dituen Bidea.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gosea asetzen duen Ogia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gaitzak sendatzen dituen Osasuna.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure heriotza garaitzen duen Bizia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure betiko bizia ziurtatzen duen Piztuera.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

## 6. Gora Zu: II

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Zuri, Jesus Jauna, zuzentzen dizugu gure otoitza.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:*



∇. En - tzun, Jau - na, gu - re go - ra - pe - na.

*Denek*

Go - ra Zu, be-dein-ka-tu-a - Zu, es-ke-rrak Zu - ri.

Zu zara Aitaren Seme bakarra.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, gizakia salbatzearren, giza izaera hartu zenuen,  
Birjina Amaren sabelean.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, heriotzaren eztena garaiturik,  
zeru-erreinuko ateak ireki dizkiezu fededunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude,  
betiereko aintzan.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Sinesten dugu berriz etorriko zarela  
diren guztien Epaile eta Jaun.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zatoz eta lagundu  
zeure odol baliotsuaz erosi dituzunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Egizu, betiereko aintzan  
zure santuekin batean bizitzera irits gaitetzela.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

## 7. Zorionekoak, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Senideok: Egin diezaiogun otoitz  
gizaki guztien atsedean eta poz-iturri den Jesus Jaunari,  
eskerrak emanez,  
bere erreinuko mahaira deitu gaituelako,  
eta gizadi osoaren alde eskatuz.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

Zuzendariak Denek

∇. Zo-ri-o-ne-ko-ak. ✠. Zo-ri-o-ne-ko-ak, Jau-

na, zu-re e rrei-nu-ko ma-hai-ra dei-tu-ak.

Jesus Jauna,  
Zuk gurutzean zeure burua eskaini zenuen,  
gizon eta emakume guztiok bizia izan dezagun;



eta lantzak zulatutako zure bihotzetik  
odola eta ura isuri ziren, handik zure Eliza sor zedin;  
egizu Eliza hau santu eta errugabe  
eta zure maitasunaren ezaugarri bizi.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gure bake eta adiskidetzaille,  
gurutzeaz gorrotoa ezereztu egin zenuen  
eta, zeure baketzearen bidez,  
guztiok gizaki berri egiten gaituzu:  
isur ezazu zeure Espiritua  
gizadi osoa familia bat bera izan dadin  
maitasunean eta batasunean.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gure bizi eta berpizte,  
nekatu eta lanpetuentzat atsedean zara Zu:  
bakardadearen, oinazearen  
edo etsipenaren zamapean daudenek aurki zaitzatela,  
zure erreinuaren pozean guztiok elkaturik,  
esker onez gorets zaitzagun.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gizaki guztien argi eta salbamen,  
Zuk dituzu betiko biziaren hitzak  
eta Zu zaitugu zorion betera daraman bidea;  
egizu, fedea argiturik biziaren hitz horiek entzun ditzagula  
eta gure bizitzan zintzo bete.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, Zuk heriotza ezereztu eta bizi berria ematen diguzu:  
eskerrak ematen dizkizugu,  
bizi-egarria ase ahal dezagun  
bizia zabaldu eta laguntza ematen diguzulako;  
egizu, biziera berri batean ibil gaitezela.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, zeru-lurrek goستن zaituzten Jauna:  
har ezazu gaur,  
elkarte honek, Eliza osoarekin batean,  
gogoz eta pozik eskaintzen dizun gurtza:  
eta egizu, orain lurrean gurtzen zaitugunok  
gorets zaitzagula betieran zeruan.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

## 8. Bai zorionekoak

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Senideok: egin diezaioGUN otoitz ogi bizia den Jesu Kristori.

—Kristo, itun berri eta betikoaren apaiz, gurutzean opari ezin hobe eskaini zenion Aitari: erakutsiezaguzu opari bera Zurekin eskaintzen.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak* *Denek*

✂. Bai zo - ri - o - ne - ko - ak. ✂. Bai zo - ri - o ne - ko - ak, Jau-  
 na, zu - re e - rrei - nu - an o - gi - a jan - go du - te - nak!

—Kristo, bakearen eta zuzentasunaren Errege handi, Zuk ogi-ardoak sagaratu zenituen zeure eskaintza adierazteko: ogi beraz janaritzen dituzunak, zure gorputzean bat egin ditzazula.

✂. Bai zorionekoak.

✂. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, zerutik jaitsitako mana, zure Gorputz-Odolez janaritzen duzu Eliza: janari honen indarrez ibil gaitzela.

✂. Bai zorionekoak.

✂. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, ikusten ez zaitugun gure otorduko mahaikide, atarian zaudena eta ate joka ari zarena, guregana etor zaitezela eta elkarrekin jan dezagula.

✂. Bai zorionekoak.

✂. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

## 9. Kristo, zeruko ogi

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Kristok bere afarira dei egiten digu guztioi,  
eta afari horretan bere Gorputz-Odolak ematen dizkigu,  
munduaren bizirako. Otoitz egin diezaigun berari.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

Zuzendariak Denek

∇. De - nok ba - te - an es - ka - tzen di - zu - gu. ⚡. Kris -  
to ze - ru - ko o - gi, e - ma - gu - zu be - ti - ko bi - zi - a.

—Kristo, Jainko biziaren Seme, eukaristi afaria zure orogarri egiteko agindu zenigun: emaguzu zure misterioak zintzo ospatzea zure Eliza aberats dadin.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

⚡. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, Goi-goikoaren apaiz bakar, apaizei eman diezu sakramentuak ospatzeko eginkizuna: egizu, beren bizitzan bete dezatela, sakramentuetan egiten dutena.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

⚡. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko mana, ogi beretik jaten dutenak gorputz bat egiten dituzu: indar itzazu, Zuregan sinesten dutenen artean, bakea eta elkertasuna.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko sendagile, zeure ogiaz hilezkor egiten gaituzu, eta piztueraren itxaropenez betetzen: emaezu gaixoei osasuna eta bekatariei uste ona.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**


—Kristo, berriro etorriko zaren Errege, zure heriotza adierazten duten misterioak, Zu etorri arte ospatzeko agindu diguzu: egizu, Zuregan hildako guztiak zure piztueran piztu daitezela.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

## V. BEDEINKAPEN ESKARIA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

**1** *Zuzendariak*




*Denek*

∇. Jaunak bedeinka gai-tza - la e-ta gaitz guztietatik




zaindurik eraman gaitzala betiko bi - zi - ra. *R*. A - men.

**2** *Zuzendariak*



*Denek*

∇. Jaun ahalguztidun erru-ki-tsu-ak, Ai-tak, eta Semeak, eta



Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala e-ta zain-du. *R*. A-men.

## VI. AZKEN AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUA

**1** *Zuzendariak*

*Denek* ∇. Zo - az - te Jau-na - ren ba-ke - an.

℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

**2** *Zuzendariak*

∇. Za - bal - du alde guztietan Jaun berpiztua - ren po - za.

*Denek*

Zo - az - te Jau - na - ren ba-ke - an. ℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

*Pazko-igandean eta zortzigarrenean, nahiz Pentekoste-igandean honela egingo da agurra, amaieran aleluia erantsiz:*

*Zuzendariak*

**1** 

*Denek* **∇.** Zo-az-teJau-na-ren ba-ke-an, a-le-lu-ia, a-le-lu-ia.



**⌘.** Eske-rrak Jainko-a-ri, a-le-lu-ia, a-le-lu-ia.

*Zuzendariak*

**2** 

*Denek* **∇.** Zo-az-teJau-na-ren ba-ke-an, a-le-lu-ia, a-le - lu - ia.



**⌘.** Es - ke-rrak Jain-ko-a-ri, a-le-lu-ia, a-le - lu - ia.